

34. AKTA

ACTA N.º 34

Zerbitzu Orokorren Batzordea

Comisión de Servicios Generales

Batzar mota: Ohikoa

Sesión: Ordinaria

Eguna: 2022-09-19

Día: 19-09-2022

Ordua: 08:00an

Hora: 08:00 h

Tokia: Udalbatza

Lugar: Salón de Plenos

Batzordeburua: Jaione Hervás Saez de Arregi

Presidenta: Jaione Hervás Saez de Arregi

Etorritakoak:

Asistentes:

Zinegotziak:

Concejales y concejales:

Juan Ramon Viles Mitxelena

Juan Ramón Viles Mitxelena

Maria Jesus Idoeta Madariaga

María Jesús Idoeta Madariaga

Ane Oyarbide Ochoa

Ane Oyarbide Ochoa

Cristina Lagé Manich

Cristina Lagé Manich

Reyes Carrere Zabala

Reyes Carrere Zabala

Zigor Etxeburua Urbizu

Zigor Etxeburua Urbizu

Jorge Mota Iglesias

Jorge Mota Iglesias

Marta Huarte Paño

Marta Huarte Paño

Beste zinegotziak:

Otros/otras concejales y concejales:

Martín Ibabe Eceiza

Martín Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe

Kerman Orbegozo Uribe

Beste Batzuk:

Otros/as:

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Lege Zuzendaria *(bileran egon da gai-zerrendako 2. puntua aztertu den bitartean)*.

Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Director Jurídico *(se halla presente en la sesión durante el tratamiento del punto n.º 2 del Orden del Día)*.

Idazkaria: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkariak eskuordeturik.

Secretario: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación del Secretario.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

1.- 2022ko uztailaren 11an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.

1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 11 de julio de 2022.

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 33. akta, 2022ko uztailaren 11an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 33 correspondiente a la sesión celebrada el día 11 de julio de 2022.

2.- Lege zuzendariaren agerraldi eskaera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Polizia Akademiaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena dela eta.

2.- Solicitud de comparecencia del Director Jurídico, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al convenio entre la Academia de Policía y el Ayuntamiento de San Sebastián.

Zigor Etxeburuak hurrengo agerraldi eskaera aurkeztu du:

El Sr. Etxeburua Urbizu presenta la siguiente solicitud de comparecencia:

“2016tik, Donostiako Udalak hitzarmena dauka Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin tokiko poliziaren oinarritzko eskalako bitarteko agenteen lan poltsa sortzeko. Horren arabera, Udalak Akademiako bitartekoen poltsa bakarretik egiten ditu bitarteko agenteen kontratazioak. Hitzarmenak jasotzen duenez, aldi baterako “langile horiek aldeztu aurretik hautatu, prestatu eta gaituko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (...) kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz” (Klausulak, lehena). Gainera, aldean betebeharrak zehaztuta, hitzarmenak adierazten du Akademiak hautagaien prestakuntza gauzatuko duela, eta Udalak uko egingo diola lan poltsak antolatzeari, eta modu eskusiboan baliatuko dituela “Segurtasun Sailaren poltsako bitarteko langileak” (Klausulak, hirugarrena).

“Desde 2016, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián tiene un convenio con la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la creación de una bolsa de trabajo de agentes interinos pertenecientes a la escala básica de policía local. Según dicho convenio, el Ayuntamiento realiza las contrataciones de agentes interinos desde una única bolsa de interinos/as de la Academia Vasca de Policía y Emergencias. El convenio recoge que dicho personal eventual «será previamente seleccionado, formado y habilitado por la Academia Vasca de Policía y Emergencias (...) garantizando su calidad y eficacia» (Cláusulas, primera). Además, concretando las obligaciones de las partes, el convenio señala que la Academia llevará a cabo la formación de las personas candidatas, renunciando el Ayuntamiento a la organización de las bolsas de trabajo y haciendo uso exclusivo del «personal interino de la bolsa de trabajo del Departamento de Seguridad» (Cláusulas, tercera).

2019tik gaur arte, ordea, Udalak euskaraz gaituta ez dauden agenteak hartu behar izan ditu udako beharrei aurre egiteko, Arkautiko akademiak ez duelako bermatu euskara gaitasuna izatea bere lan poltsako aldi baterako langile guztiek. EH Bilduk galdetu zion Udal Gobernuari zer dela eta ez duen aztertu zerbitzu juridikoekin, indarrean dagoen ala ez Udalak Polizia Akademiarekin duen

Sin embargo, desde 2019 hasta la actualidad, el Ayuntamiento ha tenido que contratar a agentes sin capacitación en euskera para hacer frente a las necesidades estacionales, ya que la Academia de Arkauten no ha garantizado la competencia lingüística en euskera de todo el personal eventual de su bolsa de trabajo. Por todo ello, EH Bildu preguntó al Gobierno Municipal sobre el motivo por el que no ha

hitzarmena, ikusita Arkauti ez dela betetzen ari lan poltsetarako adostutakoa. Zinegotzi ordezkariak onartu zuen Arkauti ez dela hitzarmena betetzen ari.

Edonola, zinegotzi ordezkariak behin eta berriz adierazi izan du Donostiako Udala behartuta dagoela hitzarmena betetzera, agente berrientzako nahitaezkoa den trebakuntza berezitua Polizia Akademiak besterik ezin duelakoan eskaini. Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak, ordea, ez dio horrelakorik:

59. artikulua.– Behin-behineko beharrizanak.

1.– Udalen batek beharrizana badu, Udaltzaingoko kidegoetako kategorietan, premiaz eta aldi baterako lanpostuak betetzeko, legez ezarritako udalarteko lankidetzeta-mekanismoen arabera jokatu ahal izango du edo bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango ditu funtzio publikoari buruzko lege orokorrek ezarritakoaren arabera, betiere berrituta bitartekoekin oinarritzko prestakuntza daukatela lan hori egiteko. Azken kasu horretan, lanpostu-zerrendako plaza hutsak badira, ezin izango da inolaz ere izendatu, ez bada sartu plaza huts horiek enplegu-eskaintza publikoan aldeztu aurretik, eta ez bada hasi plazak jabetzan betetzeko prozesua, edo ez bazaio egin Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari hautaketarako kudeaketa-gomendioa.

Oinarritzko prestakuntza horri dagokionez, ez du inolako zehaztasunik egiten, ezta aipatzen ere Polizia Akademiak eskaintzen duena izan behar duenik.

Ondorioz, argi hautematen da hitzarmena ez dela berdinen artekoa izaten ari, eta Donostiako Udala kaltetua dela, Polizia Akademiak ez dituelako Udalaren beharrizanak osoki astetzen, eta legezkoa ez diren beharkizunak ezartzen dizkiolako, mendeko egoeran uzten duten baldintzak ezarrita.

Gainera, Donostiako Udalak urtez urte baliatu behar izan du euskaraz gaitutako agenteak ziurtatzen ez dituen Polizia Akademiaren bitartekoen lan poltsa, horretarako salbuespenaren bidea baliatu behar izanik. Donostiako Udalean euskararen erabilera

analizado, junto con los servicios jurídicos, si está vigente el convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la academia de Arkaute. El concejal delegado reconoció que Arkaute está incumpliendo el convenio.

No obstante, el concejal manifestó también que el Ayuntamiento de Donostia está obligado a cumplir el convenio ya que la formación especializada obligatoria para los nuevos agentes sólo puede ofrecerse desde Arkaute. Sin embargo, el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, no determina nada semejante:

59. Artículo 59.– Necesidades eventuales.

1.- Cuando un ayuntamiento tenga necesidad de cubrir puestos de trabajo de forma urgente y temporal en las diferentes categorías de los Cuerpos de Policía Local podrá actuar según los mecanismos de cooperación intermunicipal previstos legalmente o nombre funcionarios y funcionarias interinos conforme a lo establecido en la legislación de función pública general, siempre que se garantice una formación básica del personal interino para el desempeño de su labor. En este último caso de tratarse vacantes de plantilla solo se procederá al nombramiento si previamente se hubieran incluido estas vacantes en la oferta pública de empleo y se hubiera iniciado el proceso para su cobertura en propiedad o se hubiera solicitado a la Academia Vasca de Policía y Emergencias la encomienda de gestión de su selección.

Respecto a esta formación básica, no hace ninguna precisión ni menciona que deba ser la ofertada por la Academia de Policía.

En consecuencia, se percibe claramente que el convenio no está siendo entre iguales y que el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián sale perjudicado, ya que la Academia de Policía no satisface completamente las necesidades del Ayuntamiento, y también porque esta última impone una serie de obligaciones ilegítimas, estableciendo ciertas condiciones que dejan al Ayuntamiento en una posición de dependencia.

Además, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián ha tenido que hacer uso año tras año de la bolsa de interinos de la Academia de Policía que no acredita la capacitación lingüística en euskera de las y los agentes habilitadas/os, para lo cual ha de acudir a la vía de la excepcionalidad. El VI plan de

normalizatzeko VI. plangintzak jasotzen ditu lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko jarraibideak, eta salbuespenei dagokienez, ondokoa zehazten du (7. puntua):

Jarraibide hauek betetzeak administrazioaren antolamenduan edo zerbitzu publikoa eskaintzerakoan ondorio larriren bat eragingo balu, salbuespenez, bestelako irizpiderik ezarri ahal izango da Euskara Zerbitzuaren aldeko txostenarekin eta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren oniritziarekin.

Salbuespena urtez urte baliatuta, salbuespena arau bilakatu da. Era berean, Udal Gobernuak ez ditu bildu ez Euskara Zerbitzuaren, ez Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren aldeko txostenik edo iritzirik. Bi alderdi horiek auzitan uzten dute Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintzak agindutakoa.

AGERRALDI ESKAERA

Horiek horrela, EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk eskatzen du, indarrean den Udaltzaren Araudi Organikoaren 136. artikuluari jarraiki, Lege zuzendari JUAN CARLOS ETXEZARRETAk agerraldia egin dezala Zerbitzu Orokorretako Batzordean, Polizia Akademiaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmenari buruz.

1. Kontuan izanik Polizia Legearen 59. artikuluko 1. puntuak ez duela zehazten lan poltsetako bitarteko agenteek izan beharreko oinarritzko trebakuntza, berariaz, Polizia Akademiak eskaintzen duena izan behar duenik, zer nolako ohartarazpenak egin dizkiozu Udal Gobernuari horren inguruan?

2. Aurreko puntuan aipatutakoa kontuan izanik, adierazi al diozu Udal Gobernuari ez dela bidezkoa Polizia Akademiak Donostiako Udalari hitzarmenean ezarri dion baldintza eta, beraz, lan poltsak ez duela nahitaez Polizia Akademiak eskaintzen duena izan behar, eta antola dezakeela Udalak berak bere lan poltsa?

3. Kontuan izanik Udalaren lan poltsetarako irizpideak aldatzeko, Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena eta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren oniritzia behar direla, baina 2019tik ez dituela ez bata ez bestearen aldeko txosten edo iritzirik bildu, zer nolako ohartarazpenak egin dizkiozu Udal Gobernuari

normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián recoge las directrices para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad de los puestos de trabajo, especificando en relación a la excepcionalidad lo siguiente (punto 7):

Si el cumplimiento de estos criterios pudiera originar alguna consecuencia grave en la organización de la administración o en el cumplimiento del servicio público, con carácter excepcional, se podría utilizar otro criterio con el informe favorable del Servicio de Euskera y con el visto bueno de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística.

Aprovechando la excepcionalidad aplicada año tras año, ésta se convierte en norma. Asimismo, el Gobierno Municipal no ha recabado informe ni opinión favorable del Servicio de Euskera ni de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística. Ambos aspectos cuestionan lo establecido por el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento.

SOLICITUD DE COMPARECENCIA

Ante esta situación, el concejal del grupo municipal EH Bildu Zigor Etxeburua Urbizu solicita, de conformidad con el artículo 136 del vigente Reglamento Orgánico del Pleno, la comparecencia de director jurídico JUAN CARLOS ETXEZARRETA, ante la Comisión de Servicios Generales, relativa al convenio entre la Academia de Policía y el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

1. Teniendo en cuenta que el punto 1 del artículo 59 de la Ley de Policía no especifica que la formación básica que deben tener los agentes interinos en bolsas de trabajo sea específicamente la que ofrece la Academia de Policía, ¿qué tipo de advertencias ha realizado al Gobierno Municipal al respecto?

2. Teniendo en cuenta lo mencionado en el punto anterior, ¿ha manifestado al Gobierno Municipal que no procede la condición establecida en el convenio por la Academia de Policía al Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, por lo que la bolsa de trabajo no debe ser necesariamente la que ofrece la Academia de Policía y el propio Ayuntamiento puede organizar su propia bolsa de trabajo?

3. Teniendo en cuenta que excepcionalmente el Gobierno Municipal ha admitido el incumplimiento del requisito de capacitación lingüística de estos agentes temporales, pero para ello es necesario el informe favorable del Servicio de Euskera y el visto bueno de la Comisión Técnica de Normalización, ¿qué

horren inguruan?

4. Kontuan izanik, udaldioro ohikoak diren beharretarako, urtez urte salbuesenez onartu izan duela Udal Gobernuak aldi baterako agente horiek hizkuntza gaitasunaren betekizuna ez betetzea, eta, ondorioz, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintza edukiz husten eta langileen arteko bereizkeria eragiten ari dela, zer nolako ohartarazpenak egin dizkiozu Udal Gobernuari horren inguruan?

Donostian, 2022ko uztailaren 1ean

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Zigor Etxeburuak, Juan Carlos Etxezarretak eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(08:15an Kerman Orbegozo bilerara sartu da)

3.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.

3.1.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Polizia Koordinatzeko Batzordean Udaltzaingoaren uniformedun agintariak ez egoteari buruz.

Jorge Motak hurrengo interpelazioa aurkeztu du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udaltzatzen Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Polizia Koordinatzeko Batzordean Udaltzaingoko agintari uniformedun ez egoteari buruz, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren 3an, Ertzaintzako eta Udaleko

advertencias ha realizado al Gobierno Municipal al respecto?

4. Teniendo en cuenta que, para las necesidades habituales de toda época estival, año tras año el Gobierno Municipal ha venido admitiendo de forma excepcional el incumplimiento del requisito de capacitación lingüística por parte de dichos agentes temporales, y en consecuencia, el VI plan de normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, ¿qué tipo de advertencias ha hecho al Gobierno Municipal al respecto, cuando se está vaciando de contenido la planificación y creando discriminación entre el personal?

En San Sebastián, a 1 de julio de 2022

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu ”

Intervienen los Sres. Etxeburua Urbizu, Etxezarreta Villaluenga y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(El Sr. Orbegozo Uribe se incorpora a la sesión a las 08:15 h)

3.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.

3.1.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la ausencia de mandos de la Policía Municipal de uniforme en la Comisión de Coordinación Policial.

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre la ausencia de mandos de la Policía Municipal de uniforme en la Comisión de Coordinación Policial.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 3 de agosto los responsables de la

segurtasuneko arduradunek Polizia Koordinatzeko Batzordearen bilera izan zuten, Aste Nagusiko egunetan jai-esparruetan eta jende asko biltzen den lekuetan haien presentzia areagotzeko, hiri osoan segurtasuna bermatzeko prebentzio-operatiboaren barruan.

Bilera hartan, Udalaren aldetik, alkatea eta Herri Segurtasuneko zinegotzia izan ziren, eta Udaltzaingoa izenean, berriz, haren zuzendaria. Arduradun politikoak bakarrik. Agintari uniformedunik ez. Ertzaintzaren aldetik, ostera, haren zuzendaria, buru eta intendentea, eta Donostiako eta Gipuzkoako ertzain-etxeetako buruordeak izan ziren, guztiak ere uniformeak jantzita.

Harritu egiten gaitu Udaltzaingoko agintari uniformedunik ez ikusteak Udaltzaingoiari eta Donostiako hiriarri zuzenean eragiten dien kontu batean, Polizia Autonomikoko parte-hartzaileen uniforme-erakustaldiaren aurrean.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldea zergatik ez zen joan bilera hartara uniformeak jantzitako polizia-agintari bakar batekin ere?

Donostia, 2022ko irailaren 8a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

Jorge Motak eta Martin Ibabek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoa grabatu dira.

3.2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, oposizioko taldeen eta horien eraginpeko herritarren espedienteetarako sarbideari buruz.

Hurrengo interpelazioa irakurritzat eman dute:

Ertzaintza y de seguridad del Ayuntamiento mantuvieron una reunión de la Comisión de Coordinación Policial para intensificar su presencia en recintos festivos y lugares de gran afluencia durante los días de la Semana Grande como parte del operativo preventivo dirigido a garantizar la seguridad en toda la ciudad.

En dicha reunión, por parte del Ayuntamiento, estuvieron el Alcalde y el concejal de Seguridad Ciudadana, y en representación de la Guardia Municipal su Director. Solo responsables políticos. Ningún mando de uniforme. Sin embargo, por parte de la Ertzaintza asistieron su directora, el jefe e intendente de la Ertzaintza, así como los subjeses tanto de la Comisaria de San Sebastián como el Territorial de Gipuzkoa, todos ellos vestidos de uniforme.

Nos sorprende no ver a los mandos de la Policía Municipal de uniforme en un asunto que afecta directamente a la Guardia Municipal y a la ciudad de San Sebastián, frente al despliegue de uniformes de los participantes por parte de la Policía Autonómica.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no acudió a dicha reunión con ningún mando policial de uniforme?

En San Sebastián, a 8 de septiembre de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen los Sres. Mota Iglesias e Ibbabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

3.2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el acceso a expedientes de los grupos de la oposición y de los ciudadanos afectados por los mismos.

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, oposizioko taldeek eta ukitutako herritarrek espedienteetara sartzeko aukera izateari buruz, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

.Donostiako Udalaren webguneak informazio publikorako sarbideari buruz dio edozein pertsona fisikok nahiz juridikok duela eskubidea Donostiako Udalak bere egitekoak betetzen sortzen edo lortzen duen informazioa eskuratzeko eta ez dagoela eskaera motibatu beharrik, nahikoa dela zehatz azaltzea zer informazio nahi den.

Hala ere, herritar batek edo oposizioko talde batek espediente bat eskuratu nahi duenean, idatziz eskatu behar du, eta dagokion funtzionarioak erantzun arte itxaron. Egia da azkenean ia kasu guztietan eskuratzen dela eskatutako informazioa, baina eskatzaileak itxaron behar duen denbora eta horrek funtzionarioari ematen dion lana murriztu liteke, baldin eta oposizioko taldeek, espediente horrek eragindako herritar edo profesionalak —adibidez, komunitate baten gaia daraman abokatu batek edo lizentzia bat abian duen edo eskatu duen arkitekto batek— edo espediente horiek eragindako donostiarrek zabalik badute espediente horietarako sarbidea. Horrek denbora eta lana aurreztuko lieke gure funtzionarioei, ez baita ukate sobera.

Metodoa, adibidez, pasahitz bidezkoa izan liteke; horrekin, ukitutakoei kontsultatu behar dituzten espedienteak irekiko litzaizkieke, udal-webgunearen bidez.

Kontua ez da edonork espediente bat libreki kontsultatu ahal izatea, Datuak Babesteko Legearekin talka egin baitezake horrek. Kontua da ukitutakoei eta oposizioko taldeei erraztasunak ematea lan egiteko behar dituzten espedienteetarako sarbidea izan dezaten.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre el acceso a expedientes de los grupos de la oposición y de los ciudadanos afectados por los mismos.

JUSTIFICACIÓN

La web del Ayuntamiento de San Sebastián en relación al acceso a la información pública, dice que cualquier persona física o jurídica tiene derecho a acceder a la información elaborada o adquirida en el ejercicio de sus funciones por el Ayuntamiento de San Sebastián, y que no es necesario motivar la solicitud, sólo se requiere una descripción precisa de la información solicitada.

Sin embargo, cuando un ciudadano o un grupo de la oposición quiere acceder a un expediente debe solicitarlo por escrito y esperar a que el funcionario correspondiente le responda. Es cierto que al final se acaba accediendo a la información solicitada en casi todos los casos, pero el tiempo de espera para el solicitante y el trabajo que le implica al funcionario podría verse reducido si los expedientes fueran abiertos para los grupos de la oposición así como para los ciudadanos o profesionales afectados por dicho expediente, por ejemplo, un abogado que lleva el tema de una comunidad o un arquitecto que tiene en marcha o solicitada una licencia, o los donostiaras afectados por dichos expedientes. Esto ahorraría tiempo y trabajo a nuestros funcionarios, algo que no les sobra.

El método, por ejemplo, sería mediante una clave que abriera a los afectados los expedientes que necesitan consultar a través de la web municipal.

No se trata de que cualquiera pueda consultar un expediente libremente, para evitar chocar con la Ley de Protección de Datos, se trata de facilitar a los afectados y a los grupos de la oposición el acceso a expedientes que les son necesarios para poder realizar su trabajo.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. Oposizioko taldeek eta ukitutako herritarrek zergatik ezin dituzte zuzenean eskuratu espedienteak?
2. Gobernu-taldeak ba al du haien eskura pasahitz bat jartzeko asmorik, espedienteak eskuratzeko?
3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2022ko irailaren 8a

Borja Corominas Fisas
Talde Popularraren bozeramailea”

Juan Ramon Vilesek eta Jorge Motak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Eta, bestelako aztergairik ez dagoela, batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko goizeko zortziak eta hogeita zortzi minutu bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMAN DUT.

**BATZORDEBURUAK O. E. /
V.º B.º DE LA PRESIDENTA:**

Jaione Hervás Saez de Arregi

1. ¿Cuáles son los motivos por los que los grupos de la oposición y los ciudadanos afectados no pueden acceder directamente a los expedientes?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de poner a disposición de estos una clave para poder hacerlo?
3. En caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 8 de septiembre de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen los Sres.Viles Michelena y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, la presidenta declara terminada la sesión a las ocho horas y veintiocho minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.
